

GURE OSASUNA ZUEN DIRU GOSEAREN GAINETIK

Langile klasearen osasuna etengabe hondatuz doan honetan datorkigu aurtengo **apirilaren 28a, Lan Osasun eta Segurtasunaren Nazioarteko Eguna.**

Sektore pribatuan lan istripuek, heriotza ere dakartenak, ohiko errealitate saihegarria izaten jarraitzen dute eta zerbitzu publikoak eskaintzen ditugun sektoreotan **arriskuen prebentzioan ez da benetako aurrerapausorik** ematen. Goi mailako eta bitarteko agintariek ez dituzte ezagutzen prebentzioaren oinarriko printzipioak, osasunaren zaintza ez da berariazko arriskuen arabera lantzen, eta langileei eta euren ordezkariari ere ez zaie gai hauetaz galdetzen.

Lan eta zerbitzuetako **kontratetako langileen lan baldintzak** Administrazioen kontroleratik at gelditzen dira sarritan hauen utzikeriarengatik. Prekarietatea eta osasuna kontrajarritako elementuak dira eta **kontratu prekarioak sektore feminizatuetan** ematen dira batez ere, asistentzia sozio-sanitaria edo garbiketarena kasu.

Arrisku psikosozialak benetako gaitz bihurtu dira, euren jatorri laborala ere onartzen ez den egoera hauek ekiditeko, edo konpontzeko bederen, arduradun politikoek duten inplikazio faltagatik, batez ere.

Prebentzio Zerbitzuek, Gizarte Segurantzak eta mutuek sistematikoki **ukatzen dute osasunarentzako kalteen jatorri laborala** eta osasun sistema publikora desbideratzen dituzte kalte hauek. Ondorioz, jatorri laborala duten istripu eta gaixotasun asko ez dira estatistiketan agertzen eta ez dira prebenitzeko neurriak hartzen.

Eta hau, Lan Osasuneko institutu autonomikoek (**OSALAN, NLOE-INSL**) zein **Lan Ikuskaritzek, Administrazio Publikoak** Arriskuen Prebentziorako **arautegia eraginkortasunez betetzera behartzen ez dituztelako** da.

MURRIZKETAK: OSASUNAREN KONTRAKO ERASOAK

Erreforma eta murrizketa desberdinek, bai onartutakoek zein ohartarazten hasiak direnek, eskubide sozial eta laboralen galera suposatuz, Administrazio Publikoetako langileen kaleratzeari ateak ireki, eta beraien ondorioek langile klasearen **osasunean kalte zuzenak eragingo** dituzte.

Lanaldiaren luzaketak, plantillen murrizketekin eta langileak ez ordezkatzearekin batera, lan erritmo eta zamak handituko dituzte eta lanpostuan jarraituko duten langileen osasuna ere kaltetuko dute.

Osasunaren berrordainketak ez du langileen egoera konpontzen lagunduko, are gutxiago kalean gero eta jendarte prestazio gutxiagorekin geratuko denarena. Eta laster **mutualitateek gertakizun arruntetan altak emateko ahalmena** izango dute.

Prebentzioa lantoki guztietan errealitate izateko presioa egin behar dugu eta espainiar Gobernuak zerbitzu publikoetan inposatzen dizkigun murrizketak indarrean ez jartzea exijitu behar diegu erakunde ezberdinei, hondoak jota dugun negoziazio kolektiboarekin amaitzen duen beste esku-sartze bat suposatzen dutelako, eta gure jendartearen txirotze handiagoa besterik ez dutelako ekarriko.

EREDU PROPIOA BEHAR DUGU

Lan Harreman eta Babes Sozialerako Marko Propioa eraikitzea gero eta premiazkoagoa eta ezinbestekoagoa da. Hemen lan eta bizi garelako, geure lan harremanak zainduko dituzten arauak ere hementxe erabaki nahi ditugu: inposiziorik gabekoak, lan osasuntsua, segurua eta kalitatekoa bermatuko dutenak; mutualitateengandik libre eta benetako kontrol publikoa duen babes eta prebentzio sistemarekin; lehentasuna jendearen osasuna izango duena. Hots, **eredu publiko, unibertsal, parte-hartzailea eta kalitatekoa, gure osasuna irizpide merkantilen menpe jarriko ez duena.**

Eta hau **Euskal Herrian egin dezakegu**. Egoera ekonomiko eta soziala espainiar Estatuarenaren ezberdina dugulako, baina garrantzitsuagoa dena: geure egoera politiko, sindikal eta sozialetik abiatuta eredu propioa eraikitzeko aukera eta nahiko indarra dugulako. **Eta egin egingo dugu!**

**lotu
borrokari!**

>sektore publikoa

LAB